

**IRITZIA**

Angel Ugarteburu

**ERREPORTAIA**

Cáritas: 50 urte

Elgoibarren

# BARREN

1998ko urtarrilaren 23a  
VI. urtea - 222.  
zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

**KALE INKESTA**

Lagunduko al  
zenioke senitarteko  
bati bere buruaz  
beste egiten?

**GEHIGARRIA**

Zaharrak Berri

**BERBETAN**

Jose Mari Etxaniz,  
Filatelia Elkarteko  
kidea

**KIROLA**

San Anton Pilota  
Txapelketa

**KULTURA**

San Anton jaiei  
errepasua



Elgoibarko Cáritas

50 urte elkartasunaren  
bidetik lanean

“Ekintza on guztiak karitatezko egintzak dira” Og Mandino



**Orain egoitza berria: Deba kalea, 2 behea**

**TEL: 74 80 13 • FAXA: 74 81 35**

**Hemendik aurrera inmobiliaria zerbitzua ere bai**



**ORDUTEGIA**  
**Astelehenetik ostiralera**  
**Goizez: 8,30-1**  
**Arratsaldez: 3,30-8**  
**Larunbatetan**  
**Goizez: 9,30-1**

 **ZURICH**  
aseguroak

**Pedro Basurco**  
**Amaia Pagoaga**



**BASURCO**  
inmobiliaria



ANGEL  
UGARTEBURU

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Eguberrietako txoriak

**E**mandako hitza betetzeko garaia iritsi egiten da eta zerbait buruz idatzi beharrez hausnartzen hasi naizenean, pasatu berri diren Gabonetako argudioak datozkit berezko borborrean, asmaketan ahaleginik egin beharrik gabe. Barkagarri izango ahal zait, San Antonak igaro arte Gabon oihartzunak gure artean baitirau.

Gabonak eta Eguberri. Hitzak berak adierazten digu. Egun Berri, eguna luzatzen hasten deneko garaia, neguko solstizioa. Eguzkiari erreparatuz, halaxe da. Orain hasi du eguzkiak San Juanetan bukatuko duen goranzko bidea. Ekainean (ekia edo eguzkiak zeruan gaina edo zenita lortzen duenean) suarekin ospatuko dugu berriz ere orain Olentzeroren enborreko txingarrarekin ospatu duguna bera.

Badakigu erromatarrek beste era batera banatzen zutela urtea. Haientzat martxoa zen lehen hilabetea, udaberriko eguzkiaren izpiek lurra goxatuz sortarazten zituzten lehen ernemuinei erreparatuz. Ohartu al zarete September, October, November eta December hitzek zazpi, zortzi, bederatzi eta hamarrekin dutela zerikusia? Abendua hamargarren hilabetea zen haientzat. Urte banaketa biek ere naturaren zikloa dute oinarri. Batean eguzkiaren ibilbidea da neurgailua eta lurreko landareen bilakaera, bestean.

Kristauek ere naturaren ziklo hori hartzen dute festen datak jartzeko oinarri. Nabarmena da Eguberri, fededunaren eguzkia, jaio berri den Jesus dela. Aita Eguzkia, Ama Lurra, Jesus Jainko gizon egina... Ez dira, ez, gaur egunean inolako zentzurik ez duten


zorakeriak. Gizakiak betidanik izan duen beharraren islada dira. Izadian bertan edo izaditik kanpo, gure bizitzari ardatza aurkitzea da kontua.

Elkarri zorionak opatzeko garaia izan ohi da, bakoitzaren sinesmen edo usteak gorabehera. Zori onak edo txori onak. Antzinatetik datorkigun iritzia da hauxe ere, zorte ona ala txarra airetik datorkigula, txoriak bezala. Erderaz ere esaten da "pájaro de buen agüero" eta "de mal agüero". Umetatik datozkidan oroitzapenek ere, bestalde, airetik datorren zoriaren irudia dakarkidate. Ilunabar epeletan leihotik ezkaratzeko argitara sartzen ziren txalupitxa (tximeleta) haiek berri onak zekartzaten.

Txoriburukeria litzateke, dena den, zorte ona edo txarra txoriek dakartela sinestea. Txori onak edo txori txarrak, norbere erreklamoaren arabera etortzen dira; bakoitzak deitzen dio bere txoriari.

Greziarren mito baten arabera, bizitza zirkulo bat da, natura bera den bezala. Lehengo pausoetara itzultzen gara, lehengo bidea berribiltzeko. Ziklo, zirkulu edo uztai hori hertsia balitz, askoren ustez ez legoke gu baino zorigaitzekoagorik. Badira zirkulu hori zirimola bizidun espirala dela uste eta sinesten dutenak ere.

Ez dut bukatu nahi gure zirkulu hau ziriimola bizi bihurtzen duten gazteak zoriondu gabe, haiek zoriontzan betiko Eguberriaren alde egiten baitugu apustu. Baina dei diezaiotela lanean eta prestaketa egokian habia egiten duen txoriari, ur geldu lizunetan ito ez dadin gure etorkizunaren atarian eguberri den gazteria!



©KOKO 98 - 1



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 74 37 04  
Faxa: 74 37 04

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Miren Moreno

## MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

## GERENTZIA

M. Angeles Ortuoste,

Rafa Alvarez

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Jon Garate, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Julian Segundo,

Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



## Euskararen eta AEKren aurkako erasoak direla eta

Pasa berri diren Gabonetatik, euskararen eta AEKren aurka zenbait komunikabidek (El Pais, Canal Plus, Tele 5...) muntatu duten nahaspilaren aurrean, gure herriari gertaizun berri eman nahi diogu, hausnarketa egin dadin.

Polemika honen atzean duela 11 urte argitaratu, hizkuntza ugariaren irakaskuntzan erabili eta erdarazko testu batetik hartu izan den ariketa (Expresión oral. Alhambra argitaletxea), testuingurutik atera eta beronen irakurketa maltzurra egin nahi izan da, berriz ere, euskalgintza polemika bihurtuz eta, bide batez, AEK eta HABEren arteko harremanak ozpindu nahian. Izan ere, berria kaleratu zen egun berean 98ko hitzarmena sinatu behar zuten AEK eta HABEko ordezkariak eta iskanbilaren ondorioz sinaketa hori ez da gauzatu oraindik.

EL País-ek sortutako iskanbilaren ondoren eta ariketa honen egoitasunaren inguruko iritziak iritzi, ikasleek normaltasun osoz burutu zuten, rol joko arrunta baino ez zela jakinda eta aipatu ikasleok espreski eskatu dute ikastaroa Amara Berri euskaltegian eta orain arteko irakasleekin egiten jarraitu nahi dutela.

Gertakizunen aurrean, HABEK ikerketa zabalduko zuela iragarri zuen, AEK-k eskatu ziolarik lehenbailehen burutzea eta emaitzak publiko egitea. Baina HABEK ez du izan adorerik muntaiari aurre egiteko eta presio mediatikoen aurrean makurtu da.

Inolako eraginik izango ez duten hainbat zigor planteatu ditu, HABEK jakin badakienean berak argitaratutako materialetan ere badagoela antzeko rol-joko ugari.

Irakasle eta euskaltegi horri begira, aurrerantzean jar ditzakeen zigorrez gain, hara non iragarri diguten, erridikulua egiteko beldurrik gabe, hemendik aurrera, edozein

euskaltegi, dirulaguntza eskabideak egiterakoan, hau da, ikasturtea hasi baino lehen, erabiliko den material didaktiko guztia HABEri aurkeztu beharko diola, erakundeak berak oso ondo dakienean 9 hilabete-tan ikastaldeen erabiliko duten materiala zer-nolakoa izango den jakitea ezinezkoa dela, ez ligukeelako aukerarik emango material erreala erabiltzeko (BARREN, egunkaria, EITB,...), taldearen hizkuntz eskakizunak ahalik eta egokien asetzeko.

Hau ez da izan euskararen aurka egin den lehen eraso eta beste injustizia baten aurrean gaudela jakinik, AEKren aldetik, gure hizkuntzaren alde lanean jarraitzeko konpromezua berretsi nahi dugu euskal gizartearen aurrean.

**AEK euskaltegia**

## Agur ez, gero arte baitik

Hitz hauen bidez, omenalditxo txiki bat eskaini nahi nioke ehizak eman duen ehiztari onenatariko bati. Ehiztari onenatarikoa eta pertsona ezin hobea. Aurten ezin izan da, baina zelako hiru urte! Hiru urte 'a tope': ehiza txikiko finalak, semi-finalak...

Denok ondo dakigun bezala, dena eman duzu historian sartzeko, baina oraingoan ez da suerterik izan. Hala ere, batzuentzat oraindik zu zara txapelduna, eta badakigu laster bueltatuko zarela Bizkor txakurrarekin. Berriz ere espektakulua eta momentu onak eskaintzeko asmoarekin.

**Dani Arenas**

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

# BAI, ESAN?



**José Rejo**

IMHko zuzendaria

Aste honetako telefono deia **IMHko zuzendaria den Jose Rejori** luzatu diogu. Komunikabide gehienetan entzun edo irakurri dugu IMHk Txileko herrialde bateko azterketa industrialari egin behar duela. Gai honi buruz eta IMHri buruz berba egiteko deitu diogu Jose Rejori.

- **Horrelako erronka baten aurrean zer sentitzen da? Ilusioa, urduritasuna, ardura...** - Gure bezero guztiei erantzun egokia emateko ardura daukagu, kasu honetan Temuco izeneko korporazio industrialari da gure bezeroa. Gure kapazitatean eta esfortzuan sinesten dugu eta beraz, konfiantza osoa dugu.

- **Garbi dago zuena ez dela irakastera, besterik gabe, mugatzen den ikastetxe bat.** - Gure zeregina formazioa da, hitzaren zentzurik zabalenean (gazteen hasierako formazioa, langileen etengabeko formazioa, langabetuen formazioa, formatzaileen formazioa...). Honez gain, makina erremintaren sektoreko enpresei zerbitzu teknikoa eskaintzea ere bada gure betebeharra. Testuinguru honetan kokatu behar dira nazioarteko laguntza proiektuak, etorkizunean gure produktuentzako merkatuak izan daitezkeela uste baitugu. Txilez gain, Venezuelara, Colombia, Malaysia eta Mexicorekin ari gara elkarlanean, Makina Erreminta Fabrikatzaileen Elkartearekin batera (AFM).

- **IMH gero eta ezagunagoa da Elgoibarren eta inguruan. Ari al zarete hasieran ezarritako helburuak betetzen?** - Oraindik gauza asko egiteke dagoen arren, hasieran planteatu ziren helburuak bete diren iritzikoak gara. Gure ikasleek lana topatzen dute; gero eta ikastaro gehiago ematen ditugu langabetu eta langileen artean eta badakigu gure bezeroak (enpresak) pozik daudela.

- **Aurrera begira, erronka edo helburu berririk bai?** - Epe motzera begira, gure erronkak bi dira: batetik, IMH osoa ISO 9001 arauaren barruan sartzea eta, bestetik, Txandakako Injinerutza sendotzea, Elgoibarren goi mailako kalitatezko ikasketen aldeko apustua eginez.

## KEXAK

◆ Neska batzuk etorri dira honako salaketa hau plazaratzeko: “Itxura denez, **azken aldian lapurren batzuk solte dabilta**. Izan ere, **Urasandiko Herri-Gain Elkartean lapurreta egin zuten** joan den ostiralean. Badakigu lapurren arrastoa topatzea zaila izango dela baina hemendik aurrera Udaltzaingoa adi-adi egotea eskatu nahi dugu”.

◆ Herritar batek deitu digu zera esateko: “**Txankakua zubiko obren ostean izan zen zerrikeriari buruzko azalpen publikoak Udalak noiz emango dituen zain nago**, baina oraingoan ere ‘paso’ egingo ote duen errezeloa daukat. EZ EGIN KALE kanpaina pilotoa jarri zuten martxan Elgoibarren; gizarajoak gu, horrelako ‘pilotoeekin’ zuzen-zuzen baikoaz zabortegira. Bitartean, horrelako zikinkeriak salatzen segitu beharko dugu”.

## TXALOAK

◆ Emakume batek deitu digu Elgoibarko **Cáritas** txalotzeko. Bere esanetan, “gero eta elkartasun gutxiago dagoen gziarte honetan **poztekoa da gure artean oraindik ere pobreez arduratzen den jendea egotea**”.

### II. URTEURRENA

*1996ko urtarrilaren 23an, 70 urte zituela hil zen  
PEPITA JUARISTI ELORZAren oroimenez  
URTEURRENEKO MEZA izango da Mendaroko  
Sortzez Garbiaren elizan igandean, 25, eguerdiko 12etan.  
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.*



# Cáritas,

## 50 urte Elgoibarren

**Cáritas 1947 urte aldera sortu zen Elgoibarren. 50 urte daratza martxan Parrokiatik sortu zen elkarre honetara eta denbora honetan hainbat eta hainbat laguntza eskaini izan die behar izan duten herritarrei. Gaur egun, borondatez lan egiten duten 12 pertsona inguruk osatzen dute. Kanpotik ikusita baino askoz lan gogorragoa dago atzean eta askok uste baino laguntza handiagoa eskaintzen die langabeuei, familia pobreei, eskaleei eta beste makina bat pertsonari. Elkartasunaren bidetik egiten duten lanaren errekonozimendua iritsi berri zaie. Izan ere, gizarke arloko 1997ko Sabino Arana saria Cáritasi eman diote.**

**G**erraostean, 1947. urtean, jarri zen martxan Donostian nazioartean funtzionatzen zuen Cáritas elkarre. Donostiatik, probintziako herrietara hasi zen iristen ideia eta Elgoibarren ere data horren inguruan eratu zen, duela 50 urte hain justu.

Jose Zuazubiskar soldadutzan zegoen Cáritas Elgoibarren hasi zenean martxan. Halere, soldadutza amaitu zuenean, Manolo Rementeriarekin batera elkarrean lanean hasia erabaki zuen. Gaur arte. Izan ere, momentu honetan Jose dugu eskualdeko Cáritas elkarrearako arduraduna.

Poliki-poliki, gaur egun Gipuzkoako gotzaia den Setienek hartu zuen Cáritasen ardura eta herri txikiak elkarre ere euren funtzionamendua areagotu egin zuten. Horien artean baita Elgoibarkoak ere. Josek esan digunez,



“bi-lerak eitxen hasi ginan, euskeraz gehixenak. Epoka hartan, gainera, terroristak ginala esaten zan bilera danak euskeraz eitxiarren”.

Bilera haiek emaitza onak izan zituzten eta horri esker, borondatezko jendeak egindako lanari esker, lortu da Elgoibarren Cáritasek gaur egun betetzen duen tokia betetzea. Momentu honetan 12 pertsona inguruk osatzen dute Cáritas. Halere, Joseren hitzetan, “segun eta ze gai tratu bihar dan, zeozer delikaua bada, lau pertsonako komisio txikixaua dakagau erabakixak hartzeko. Bestela, jende asko dabilenian bueltan zaila izaten da zeozer erabakitzea eta peligrua egoten da kontu delikauak herrixan azkar zabaltzeko”.

### Diru-bilketak

Cáritasek ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen erakunde publikoetatik. Aurrekontua enpresa partikularrek eta herritarrek ematen duten dirutik osatzen dute. Cáritas elkarreak bi sail ditu. Alde batetik, Cáritas arrunta deitzen dena dago. Honako hau Parrokiari lotua dago zuzenean eta jasotzen den dirua Elgoibarko Cáritasek gestionatu eta banatzen du zuzenean. Cáritas Arrunterako bi bider egiten da diru-eske elizan. Bata Gabonetan eta bestea Gorpuzti-egunean. Gabonetan, baita ere, etxerik etxe eta enpresetan sobrea



banatzen da Cáritasen izenean, jendeak borondatez nahi duen dirua eman dezan. 1996. urtean, esaterako, 4.261.717 pezeta jaso zituzten guztira eta horietatik 3.846.218 gastatu ziren.

Langabezia sailari dagokionean, berri, bi diru-bilketa egiten dira elizan: bata apirilean eta bestea irailean. Cáritas dagoen herri guztietan egiten da diru-bilketa data horietan. Eibar, Sorluze, Elgoibar, Altzola, Mendaro, Deba eta Mutrikuko arduraduna Jose Zuazubiskar da. Josek, herri bakoitzean bildu den dirua jaso eta erdia Cáritasek Donostian duen egoitzara bidal-tzen du. Gero, hilerro-hilero, herri bakoitzak zein behar duen aztertu, eta horren araberrako eskabidea egiten da Donostian. 1996ko urrian hasi eta 1997ko iraila bitartean, Elgoibarren langabeziarako 825.986 pezeta jaso ziren eta urtean zehar



Argazkian, Elgoibarko Cáritas osatzen duten zenbait kide ikus ditzakegu.

2.830.000 pezetako eskaera egin zen Donostian. Eibarren, aldiz, 1.527.057 pezeta bildu zituzten baina 12.080.000 pezetaren beharra izan zuten.

### Udaleko Ongizate Sailarekin elkarlana

Cáritasek zuzeneko elkarlana du Udaletxeko Ongizate Sailarekin. Izan ere, Ongizate sailak eskaera egin duen familia bakoitzaren benetako egoera aztertu, paperak bete eta onarpena iristen den bitartean denbora dexente pasa daiteke. Tarte horretan, Cáritasek ahal duen laguntza eskaintzen dio familia horri. Halere, gertatu izan da, Josek esan digunez, “bateronbat harrapatzia bixetatik, Ongizate Saileretik eta Cáritasetik kobratzen. Edo, Elgoibarkua izan eta Eibarren bizitza, herri bixetako Cáritasen izena eman eta bi lekuetatik kobratzia laguntzia”. Dena dela, ahalik eta gehien saiatzen dira gauzak kontrolatzen. Gaur egun, batez beste, 10 pertsonari eskaintzen die urtean zehar laguntza Elgoibarren. Hileko, guztira, 200.000 pezetako gastua suposatzen du gutxi gorabehera. Horrez gain, 11 langabeturi 210.000 pezeta inguru banatzen zaie eta preso dauden elgoibartar bakoitzak 15.000 pezeta jasotzen ditu urtean bi aldiz, abuztuan eta Gabonetan.

### Enpresak sortzeko laguntzak

Cáritas elkarteak beharra duten herritarrei laguntza eskaintzeko intentzioarekin sortu zen, zentzu guztietan: janaria, erropa, dirua, hezkuntzarako laguntza... Hor sartzen dira, baita ere, eskaleak. Joseren esanetan, “batzuk bokadilo bat eskatzera etortzen dia eta

hoiek Santa Klarara bialtzen ditzugu. Beste batzuk bazkarixa nahixo debe eta hoiei San Lazaron bale bat ematen diue Txarridunan bazkaltzeko”.

Laguntza hauek herritar gehienek ezagutzen dituzte baina badago beste bat gehienentzat ezezaguna izango dena. Izan ere, beharra duten pertsonen enpresaren bat sortzeko ideia badute, Cáritasek laguntzak bideratzen ditu. Hau da, norbaitek ideia bat izaten duenean, Cáritasi proiektua eta aurrekontua aurkeztu eta elkarteak Donostian dituen adituek proiektuaren bideragarritasuna aztertzen dute. Ideiak aurrera egin de-

zakeela ikusten bada, negozioa martxan jartzeko dirulaguntza eskaintzen du Cáritasek, zenbateko bat debalde emanez eta gainontzekoa maileguan, epe jakin batean inolako interesik gabe itzultzeko konpromezuarekin. Halere, Josek azaldu digunez, “suerte txarra badao eta gauzak ez badia ondo etaratzen, dirua galdutzat ematen da”. Hori bai, proiektua martxan jarri eta berez funtziona dezakeela ikusi arte, Cáritaseko adituek jarraipena egiten dute.

50 urte daramatza lanean Cáritasek Elgoibarren. Beharra dutenei laguntzeko borondatezko lana eginez.

## LANGABETUENTZAT LAGUNTZAKO (96/97)

**SARRERAK** .....825.986  
**GASTUAK** .....2.830.000

## PARROKIAKO CÁRITAS (96)

**SARRERAK**  
**Eskuz emandakoak** . . . .330.242  
**Medalla Milagrosa Elkarteak emandakoa** . . . . .100.000  
**Santa Agedako koruek emandakoa** . . . . .150.111  
**Sallobente elkarteak emadakoa** . . . . .200.000  
**Gorpuzti-egun eta Gabonetan jasotakoa** . . . . .772.890  
**Gabonetako kanpaina** . . . . .2.341.084  
**Enpresek emandakoa** . . . . .365.900  
**Interesak** . . . . .1.490  
**Guztira** . . . . .4.261.717

**GASTUAK**  
**Familiei emandakoa** . . . . .3.441.084  
**Osasun Pastoral** . . . . .55.000  
**Jakiak, jazkiak, sendagaiak** . . . . .93.700  
**Eskaleak** . . . . .73.750  
**Eliz-Barrutiko Cáritasi emandakoa** . . . . .44.690  
**Arrillaga Inprenta** . . . . .26.692  
**Santa Agedara bisita** . . . . .98.000  
**Bestelakoak** . . . . .13.302  
**Guztira** . . . . .3.846.218

# Lagunduko al zenioke senitarterako bati bere buruaz beste egiten?



**IGNACIO IZAGIRRE**  
51 urte, torneroa

Gai peligrorua da baina familiako batek eskatu ezke-ro, lagundu eingo nioke. Kontzientziak hori eitzeko eskatuko liake nahiz eta legiak ez laga.



**NEREA ARENAS**  
26 urte, langabetua

Printzipioz eutanasiaren alde nago baina desberdina da etxean tokatuz gero. Ezagun eta familiakoren batek eskatuko balit, ez dakit laguntzeko ausardia izango nukeen.



**MIKEL JURADO**  
17 urte, ikaslea

Bizitza kentzia gaizki dao eta errespetau ein bihar da, baina kasu batzuk berezi-xak dia eta muturreko egoeretan igual planteatu eingo nuke zer ein.



**HAROA JURADO**  
19 urte, umezaina

Ez da erreza baina egoera batzuetan, gaixua sufritzen egotiaz gain, familixiak ere sufrirtxu eitzen dau eta hola-kuetan eutanasia legalizauta egon biharko litzake.



**JOSE LUIS SALAS**  
53 urte, metalurgikoa

Ni bihotzetik operatuta nago eta badakit zer den antzeko egoera batean egotea. Ez da erraza baina aurrera egiterik ez dagoenean, laguntza eskatuko balidate...



**ARRATE DE LA HORRA**  
39 urte, etxekoandrea

Hitz egin dugu gaiaz Gali-ziak gizonaren kasua ikusita, eta bere nahia errespetatu behar zela esaten genuen. Baina errazago ikusten da kanpotik. Etxean tokatuta, ez dakit zer egingo nukeen.

 **Bukatu S. Coop.**  
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

 **JOSE pinturak**  
(Txema)  
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.  
Zoluak, moketak, sintasola,  
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

 **Lanbroa**

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



# ISPILUARI BEGIRA



*Jose Luis Arana*

**Estazio tabernako  
jabea**

- **Zein herritako estazio ondoan bizi nahi zenuke?**

- Beti Elgoibarren.

- **Zein da sukaldaria zuen etxean?** - Ni.

- **Janaria prestatu ala jan?** - Biak atsegin ditut.

- **Osatu zure menu perfektua.** - Aukeran txuleta eder bat, baina edozerekin konformatzen naiz.

- **Bizitza zoriontsua izateko menua?**

- Betikoak: osasuna, pakea... Ez naiz asko eskatze-koa. Pozik nago daukadanarekin.

- **Zein tokitako gastronomia duzu gustuko?**

- Euskalduna, noski.

- **Euskal sukaldari bat?** - Jose Castillo, beasaindarra.

- **Afari on batekin konkista al daiteke emakume baten bihotza?** - Bai.

- **Harreman sendo bat mantentzeko errezeta?**

- Tolerantzia eta une jakinetan nor bere lekuan egoten jakitea.

- **Barkatzen ez duzun errua?** - Gezurra eta iruzurra.

- **“Boga-Boga”ko giroa ala “Barsobia”koa duzu nahiago?** - Biak berdin. Giro desberdinak dira, baina biak beharrezkoak.

- **Zein eratako saltsak gustatzen zaizkizu?**

- Sukaldean aritzea. Batez ere plater berriak asmatu edo zaharrak nere ukituaz moldatzea.

- **Azkenengo parranda noiz?**

- Urteko azken egunean.

- **Gustuko musika talde bat?**

- Mucedades zena, orain El Consorcio.

- **Garraibide bat?** - Itsasontzia.

- **Plazer bat?**

- Mundu osoan zehar kruzero bat egitea.

- **Kafe bat hartzera gonbidatuko zenukeen zinema izar bat?**

- Biziko balitz, Humphrey Bogart.

- **Eguraldiak eragiten al dizu umorean?** - Ez.

- **Herriko berri asko jakiten al da barra atzetik?**

- Ni sukaldean nago eta ez naiz ezertaz ohartzen.

- **Amets bat?**

- Etorkizunean sukaldaritza eskola bat zuzentzea Elgoibarren.

**Asier Orbea**

## OLASO TABERNA

Olaso industrialdea, 15  
Tel: 74 31 85

- EGUNEKO MENUAK -  
- LARUNBATETAN -  
Rabak • Olagarroa • Fritoak  
- GAUEZ -  
Menu ekonomikoak eta  
plater konbinatuak

• Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...  
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA  
INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 7:00-22:30  
Larunbatetan 9:00etatik aurrera

● **PPk mozio bat ez onartzea leporatu dio alkateari**

Juan Karlos Abian, PPko zinegotziak, Gillermo Garate alkatea salatu du azken ple-noan ez zuelako aipaturiko alderdiak aurkeztu zuen mozioa sartzeari onartu. Gogora dezagun, PP Eusko Jaurlaritzak ateratako ostalaritzako ordutegiei buruzko dekretu berriaren kontra azaldu dela. Izan ere, alderdikideen ustez, "ordutegi berriak ez ditu arazoak konponduko. Are gehiago, milaka lanpostu ematen duen sektore baten diru sarrerak gutxitu egingo ditu". Juan Karlos Abian eta PPren iritziz, "gaia Udaletxe bakoitzak aztertu eta erabaki beharko luke, tokian tokiko neurriak hartuz".

● **IMHK I. Enplegu eta formazio erakusketan parte hartu du**

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak Bilbon izan den Formazio eta Enplegurako I. Erakusketan (Prest 98) parte hartu zuen joan den asteburuan. IMHK jarritako stand-era ikusle ugari hurreratu zen Elgoibarko Institutuaren hezkuntza eskaintzari buruz informazioa eskatzeko. IMHko iturrien arabera, 500 bat kontsulta izan zituzten erakusketak iraun zuen egune-tan. IMHren standera hurreratu zirenak erakundeetako ordezkariak eta ikasleak izan ziren batez ere, eta Txandakako Injinerutza ikasketei buruz eta Etengabeko Formazioari buruzko informazioa eskatu zuten. Dagoeneko 10 bat enpresa harremanetan jarri dira IMHko ordezkariekin euren enpresetan Etengabeko Formazio programak martxan jartzeko.

**Azken zazpi urteetan bikoiztu egin da euskararen kale erabilera Elgoibarren**

Haurren artean hirukoiztu eta gazteen artean bikoiztu egin da

**U**dal Euskara Zerbitzuak urtero egiten duen euskararen erabilera maila neurtzeko inkestaren datuak ezagutzera eman dira. Kaleko jendearen artean egiten den inkesta honen helburua euskara mintzatuaren erabilera zenbaterainokoa den aztertzea da. Neurketaren emaitzen arabera, 6.440 elgoibartarren hizkuntz jokaera aztertu da kalean hitz egiten jardun duten bitartean. Gaur egun 10.989 biztanle direla kontuan izanik, herritarren %58a neurtu da, biztanle horien euskararen erabilera %37 izan delarik.

Adinaren arabera, haurrak dira gehien erabiltzen dutenak, helduak berriz, gutxien darabiltenak dira, %23,3k bakarrik. Ikas-tetze irteeran, jolaslekuetan, pasiarra inguruetan eta erosketetan, ordena honetan erabiltzen da eus-

kara gehien. Girorik erdaldunena, berriz, txikiteoa eta gazte giroa dira. Udala Euskara Zerbitzuko enpresetan, "oso kezagarria da gazteen artean hain euskara gutxi entzutea, ia denak euskaldunak direla kontuan izanda". Hala ere, iazko datuekin konparatuz, gazte giroan zertxobait igo da euskararen erabilera.

Azken hiru urteko datuak konparatuz gero, aipatutako gazteen arteko geroz gain, haurren artean igartzen da erabilera hazkundera. Edadetuen erabilpena, berriz, jaitsi egin da apur bat azken hiru urteetan. Azken hauek eta helduek, haurrekin euskaraz egiten dute berba, baina euren artean apenas aritzen diren euskaraz.

EUSKARAREN BILAKAERA ELGOIBARREN				
	1990	1993	1995	1997
Haurrak (0-14 urte)	%25,7	%40,9	%58,9	%68,6
Gazteak (15-24 urte)	%16,4	%15,3	%25,2	%39,3
Helduak (25-64 urte)	%14,9	%18,7	%23,4	%26,7
Edadetuak (65tik gora)	%36,7	%44,6	%39,4	%35,1
<b>Guztira</b>	<b>%20</b>	<b>%25,4</b>	<b>%31,9</b>	<b>%37</b>

**Elgoibar eta Azkoitiko Udalak hitzarmena sinatu dute kirol gaietan elkarlanean aritzeko**

**U**dal Kirol Patronatuaren eta Azkoitiko Udala Kiroldegiaren elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten joan zen ostiralean udalerrri bakoitzeko alkateak. Azkoitiko alkateak, Nerea Zubizarretak, eta Gillermo Garate Elgoibarko alkateak sinatu zuten akordioa. Sinatze ekitaldian Azkoitiko Kiroldegiko zuzendaria den Jose Flores ere izan zen. Bi alkateek errepide berria egin denetik Elgoibar eta Azkoitiaren arteko harremanak asko estutu direla azpimarratu zuten. Arlo ekonomikoan, makina erremintaren sektorea dela medio, bi herrien arteko lotura oso handia bada ere, kirol gaietan harremanak

estutzeko lehen pausoa izan da honako hau.


Bi kiroldegien arteko elkarlanaren sinadura formala joan den ostiralean izan bazen ere, bi kiroldegia aspaldi ari dira esku-tik emanda lanean. Izan ere, Kiroldegiko frontoia

konpontzen aritu diren bitartean Elgoibarko taldeen partiduak Azkoitiko kiroldegian jokatu dira. Hitzarmenari esker, Elgoibarko Kiroldegiko bazkide denak Azkoitiko instalazioak erabili ahal izango ditu, eta alderantziz.



## Unai Villena fibar eta Mendaroko Ipuin Lehiaketetan saritua

Unai Villena gazte elgoibartarrak Eibarko Hiria Ipuin Lehiaketan hirugarren saria jaso du "Bizitzaren eskena garratz eta ez-tiak" lanarengatik. 17 urtez azpiko kategorian hartu zuen parte Unai eta 15.000 pta. jaso ditu sari modura. Lan bera eta beste bat Mendaroko Ipuin Lehiaketan aurkeztu zituen bai eta irabazle izan ere. Bi lanak saritu zituzten eta 35.000 pta.ko saria jaso du. Bi lehiaketetan, Eibarkoan zein Mendaro-



koan, saritutako ipuinak argitaratu egingo dizkiotela komentatu digu. Hauxe aparte, beste lehiaketa batzuetara ere aurkeztu ditu lanak. Bizkaiko Kutxak antolatzen duen sariketa batean poesia eta prosan hartu du parte, "nahiz eta oraindik irabazleen berri ez duten eman". Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Idaz Lehiaketan ere Unairen lanen bat sarituta atera daiteke aurten. Datorren ostiralean emango dira jakitera irabazleen izenak. Unai Villenak 17 urte besterik ez ditu baina dagoeneko sari mordo bat dauka irabazita. Urruzuno lehiaketan, Elgoibarko Izarra Idaz-Lehiaketetan, Eibarko Hirian eta beste batzuetan ere saritu dute, sei-zazpi sari baditu dagoeneko.

## Mazzantini torestzailearen brontzeko irudia erosi du Udalak

Lucas Alberdi artista eibartarrak brontzez egindako irudia erosi du Elgoibarko Udalak. Luis Mazzantini torero elgoibartarrari buruz Alberdi zenak egindako hiru irudi bakarrik geratzen dira eta balio artistiko handia dute, Lucas Alberdiren lanen kotizazioa kontuan hartuz. Izan ere, artista eibartarra grabatu eta damaskinatuarekin hasi zen eta gero pintura eta eskultura ere landu zituen. Lucasen lanean zezenek toki berezia izan zuten eta garai desberdinetako toreroak erretratatu zituen, besteak beste, Joselito, Juan Belmonte, Jaime Ostos edo Mazzantini bera.

Luis Mazzantini (1856-1926) 1884an hasi zen zezenetan eta bi hamarkadatan garaiko onenen artean ibili zen, bere ezaugarrietariko bat izanik "bolapie" deiturikoa. Zezenak laga eta gero hainbat kargu izan zituen politika

munduan. Aurrera begira, Udalak herriko zenbait pertsonaia garraztziaren memoria historikoa berreskuratu nahi du.



## Institutuko irakasleek biologiako liburua argitaratu dute

Herri Institutuko Biologia saileko hiru irakasleek, Ines Askasibar, Lourdes Ortiz de Guinea eta Amaia Aranzabalek, biologia eta geologiari buruzko liburua kaleratu berri dute. Testu liburu hau euskara hutsean atera dute eta LOGSEko lehen mailako ikasleek kontsulta liburu modura erabili ahal izango dute.

Bestetik, duela egun batzuk Euskal Telebistako kamarak Herri Institutuan irudiak grabatzen egon ziren. Institutuko klase egun bat nolakoa den jasotzen dute irudiek. Izan ere, DBHko hirugarren mailako ikasleak laborategian praktikak egiten daudela egin zen grabazioa. Teoria eta praktika nola uztartzen diren azaltzea zen helburua. Grabazioa *Ikasgela* izeneko programaren baitan eman zuten asteartean, hilak 20.

## DBHko ikasleei zuzenduriko prebentzio programa

Udal Ongizate Sailak eta Ikastola, Pilar eta Herri Eskolak, DBHko ikasleei zuzenduriko drogen prebentziorako programa landuko dute datorren astetik aurrera. "Hordago!" izenpeko egitasmoak drogen aurkako jarre-  
rak indartzea du helburu 12 eta 13 urteko neska-mutilen artean. Guztira 100 bat ikasle hartuko dute parte ikastetxe bakoitzeko tutore eta orientazio saileko teknikarien inplikazioarekin. Aurten DBHko lehen mailako ikasleekin egingo da esperientzia, eta ondo ateraz gero, datorren urtean goragoko mailekin jarraituko litzateke. Programaren lana hiru ataletan banatzen da. Batetik, tutoreek ikasleekin lan egingo dute gelan. Bigarrenik, ikasleek ikastetxean gai bat lantzen duten bitartean, horien gurasoekin gai berak lantzeko saioak egingo dira. Eta hirugarrenik, gizarte osoari zuzenduriko egitasmoa martxan jarriko da, nahiz eta oraindik zertan datzan zehaztu gabe egon.

## Matrikula zabalik AEKn

Elgoibarko AEK euskaltegiak matrikula zabaldu du maila guztietan. Izena emateko 74 13 32 zenbakira deitu edo Aita Agirre plazako egoitzatik pasatu otsailaren 9a baino lehen. Langabetu eta ikasleek matrikula erdia doan izango dute Udalaren dirulaguntzari esker.

Elgoibar eta Mendaroko

# Adi!

**datorren ostiralean,**

**hilak 30,**

# banatuko dugu

Elgoibar eta Mendaroko

# Gida Komertziala

# 98

**BORREN**ekin batera



BORREN





## Dominga Astigarraga

# “Hiru bidar izan naiz Floridan, semian etxian”

**Dominga Astigarragak 78 urte ditu. Bere seme bat zesta puntako jokalaria izan zen eta gaztetan, duela 29 urte, Estatu Batuetara joan zen. Bertan ezkondu, bi alaba izan eta han bizi da ordu-tik. Dominga semea bisitat-zera orain dela 22 urte joan zen lehenengo aldiz Tampa-ra eta azkeneko duela 11 urte inguru.**

**- Tanpara joateko hartu al zenuen lehenengo aldiz hegazkina?**

- Bai, lehenengo bider. Bilbotikan Madridera jun nitzan lelengo,

Madridetik Miamira 8 ordu eta handik Tampara. Ederra izan zan, asko gustau jatan biagia. Ez naban bildurrik pasau, abioia ez zan batiere mobitzen. Egualdixa ere oso ona tokau jakun. Bueltan euki gendun egualdi txarraua eta zintxuroia ondo lotzeko esan ziguten. Aldamenian Cordobako mutil bat tokau jatan eta aurrian ez dakitx, hiru neskazahar edo. Neskazaharrak errosarixua hartuta ibili zian, guk barre ein genduan. Han ez zagon ezer pasatzerik!

**- Gustatu al zitzaizun Tampa?**

- Ederra da, bai. Plaiak ere badaude baina pasatzen dana da gehixenak partikularrak diala. aberatsenak. Ameriketan ere, hemen bezela, aberatsak aberats eta pobriak pobre. Baina Tampa ez dao kafetxua hartzera kalera urtetzerik. Han eitzen dana etxian eitzen da. Neri hemengo anbientia gehixo gustatzen jata. Pentsaizu, oin 19 urte gizonakin jun nitzanian, ibili haundi bat ein gendun eta egarrixa sartu jakun. Coca-Colia edango gendula baina gizonak txikitua nahi. Baso txiki bat etara ziuena eta 125 pezeta kobrau. Oin dala 19 urte!

**- Garestia al da dena?**

- Erropa ona asko pagau bihar da baina ostantzian, egunero ibiltzeko moduko erropa korrientia bi duron truke dao. Denda beldurgarrixak daude, nahi beste, galtzeko modukuak eta darian tentaziua.

**- Inguruak ere bisitatuko zenituzten, ezta?**

- Bai, Orlandon ere izan ginan, klase guztiko animalixa mordo bat zauan parke naturalian ere, San petersburgon... Leku askotan izan ginan. Lekuak zoragarrixak, baina bizimodua eskasa. Semia hantxe gerau zan eta ohitxuta dao bera baina nik hau nahixao. Egualdixa edarra dake, hori bai. Febreruan jun nitzan eta manga gorritan egun osua. Etorri ere, jertserik ipini be etorri nitzan.

**- Zenbat denbora egin zenuen?**

- Lelengo bider jun nitzanian bi hilabete eta beste bixetan hilabete eta erdi. Azkenerako etxera etortzeko goguakin, ez gaizki neualako, oso ondo egon nitzan baina... Semia eta erraina lanera juten zian eta ilobak eskolara, bakarrik egoten nitzan ixa egun guztia. Han, arratsaldeko 7etan itxen dabe jatordua eta “la comida” deitzen diue. Ni izan nitzanian eurekin, neuk preparatzen naban jatekua. Ez dakixe ondo jaten, artua egositxa eta holakuak! Garbantzuak, zopia, okela egosixa tomatiakin... Holakuak prepara-tzen nitxun, gauza normal-normalak baina bai gustora jaten zabela, bai semiak, baitxa errainak eta errainan gurasuak ere. Ilobak ez, harek pizzak eta hamburgesak eta holakuak nahixao!

**- Berriz noiz, Dominga?**

- Ointxe jungo nitzake, azkenengo bueltia izango litzake gainera, nere urtiekin. Oin, gainera, Carolina Del Nortera juteko asmua dake. Hori bai, hilabeterako jungo nitzake, gehixo ez. Hemen bizi gera ondo eta han denbora asko einda, azkenerako aspertu.





## Carmen Salaberria eta

### "62 urte daruau elkarrekin eta gero eta gehixo maitxe gera"

**1947ko urriaren 25ean ezkondu ziren Karmen Salaberria elgoibartarra eta Juan Garzia eibartarra. Gaur egun Bilbon bizi diren arren, biek ilusioa zuten urrezko eztaien meza Elgoibarko Parrokian egiteko, eta hala izan zen. 62 urte daramatzate elkarrekin eta hiru seme-alaba eta 9 iloba dituzte. Beraiekin zuzenean egoterik ez dugu izan baina Karmenekin gustura aritu gara berriketan telefonoz.**

#### **- Kontaiguzu nola ezagutu zineten, Karmen.**

- Akordatzen naiz, bai. Nik 17 urte nitxuan. Orduan, kanpo foalla a tope egoten zan eibartarrak etortzen zianian Elgoibarkuen kontra jokatzera. Tren espeziala etortzen zan jendez gainezka. Egun batian, Plaza Haundixan nauan ni beste hiru lagunekin eta eibartar kuadrila bat, lau mutil ikusi genitxun. Nik segitxuan bota nion begixa Juani. Oin esaten dan bezela, fletxazua izan zan.

#### **- Eta nor hurreratu zitzaion besteari?**

- Bera etorri zan. Orduan hola izaten zan. Plazan ikusi eta konbersaziua ematera etorri zian. Holaxe ezautu eta hasi ginan poliki-poliki elkarrekin urtetzen.

#### **- Astean behin ikusiko zineten, ez?**

- Bai, erderaz esaten dan bezela, "de domingo a domingo veo tu cara". Astian zihar beti kalendariuari begira, ia jaiegun bat noiz tokatzen zan. Juan Eibartik ordubateko trenian etortzen zan. Portaleko aldabia jotzen zaban eta ni preparauta baja-tzen nit-

zan, guapa-guapa nobixua gustora egoteko. San Migel aldera juten ginan pasiaran. Urtian zauan pretil batian jarri eta han egoten ginan, aste guztiko kontuak esaten.

#### **- Gogoan al duzu lehenengo musua?**

- Akordauko ez naiz ba! Nobixo hasi eta urtiak pasauta izan zan. Leheno ere gogua bai baina beste epoka bat zan, errespeto haundixa zauan. Gure epokan altarera garbi-garbi juten ginan. Ez oin bezela, egun guztia pegauta gaztiak.

#### **- 12 urte nobio. Askotxo, ez?**

- Asko izan zian bai, baina lehen ezin. Gerria tokau zan parian eta Juanen etxia ere erre ein zan, dirurik ez zakagun... Hamabi urtian aguantau in bihar izan genduan ezkondu aurretik.

#### **- Ezkontza nolakoa izan zen?**

- Elgoibarko parrokian ezkondu ginan eta bazkarixa gure etxian ein. Gero, biajian Donostira jun ginan trenian. Bost egun pasau genduzen Erreterria, Irun eta inguruko herrixak ikusten. Gero, zilarrezko ezkontzetan Canariasera jun ginan baina oin ez dou biajerik ein, etxian gaude onduen eta. Biajiek ez digute inbidixarik ematen.

#### **- 62 ez al dira urte asko?**

- Asko dia bai, baina gero eta gehixo maitxe gera. Bizitza osua



daruau elkarrekin, anai-arrebak bezela gera eta bata bestia oso ondo ezautzen dau.

#### **- Zein da sekretua?**

- Sekretorik ez dao. Gu beti izan gera oso elizakuak eta horrek indar haundixa daka. Gure burutik sekula ez da pasau separatzia. Ez da oin bezela, gauzak asko aldatu dia. Nik nahixo lehengua. Tristuria ematen dia oin parejak zela separatzen dian ikustiak, seme-alabak tartian... Guk bihar asko ein izan dou eta sakrifizuak ere ugari izan dia baina oin kurioso bizi gera eta horrek poz haundixa ematen dau.



## Zer egiteak ematen dizu ilusioa?

Umeak garenean, haunditan mediku, administrari, ileapaintzaile, aktore, arotz edo antzekoak izan nahi dugula esaten dugu. Aurrerago, ikasketak egin eta lana topatzea dugu helburu, etxea erostea, bidaiatzea... Bizitzan zehar, ilusio horietako batzuk errealitate bihurtzen dira, eta beste askok ilusio izaten jarraitzen dute, edo lortzen ditugunean desilusionatu egiten gara. Kontua da, zoriontasuna ilusioak izatean oinarritzen dela. Horregatik, gure zaharrei galdetu diegu, ea oraindik zein ilusio duten ezagutzeko asmoz.



### Ana Etxeberria

Irakurtziak. Baina bistia nahiko eskasa daukat kataratak kendu diatenetik, ez dot ondo ikusten gertutik. Askok gustau izan jata neri irakurtzia. Ostantzian nere ilusioa izan da Paris ezagutzia. Beti esan izan dot hil aurretik Parisera jun biotela. Lobiak esaten dia bixok jungo gerala.



### Lázaro Aizpitarte

Beti izan naiz mendizale amorratua eta horixe da nere ilusioa, hara eta hona mendixan ibiltzia. Hemengo paraje guztietan ibilitxakua naiz baina beti dao zerozer geratzen dana ezagutzeko. Ilusioa eingo liake Alpiak edo urruneko mendiren bat ezautziak. Ni prest edonora juteko.



### Juan González

Urte asko-asko bizitzea eta ondo bizitzea, noski. Gaztetan zein nagusitan betiko ilusioa loteria tokatzea izan da. Beti esaten dut loteria tokatuz gero, kotxe zaharra kendu eta berria erosiko dudala. Horrela kotxe berriarekin bidaiatzeko aprobetxatuko nuke. Baina horretarako loteria tokatu behar. Horra hor nire ilusioa.



### Segundo Hernández

Trankil bizitzea da gaur egun dudan ilusiorik nagusiena. Gaztetan oso zinezalea nintzen eta ez litzateke gaizki egongo aktorea eder bat ezagutzeko aukera izatea, Sofia Loren, adibidez. Gainontzean musika asko gustatzen zait. Gaztetan kitarra ondo jotzen ikasi nahi nuen baina aukerarik ez nuen eduki. Horixe izan da beti nire ilusioa.



### Purificación Castaño

Gaur egun ez daukat ilusio gehiegi. Gaztetan nere ilusioa ezkondu, seme-alabak izan eta bizimodu aurrera ateratzea zen. Hori lortu nuen baina orain gutxi seme bat hil zait. Ez da erraza aurrea ilusioz begiratzea baina beti egin behar da txokoren bat. Ahal izan banu, gaztetan ikasketak behar bezala egitea gustatuko zitzaidan. Orain, nik ezin izan dudana, seme-alabei ematen saiatu izan naiz.





*Jose Mari Etxanizek 49 urte ditu. Herrian "El sabio" ezizenez ezagutzen dute gehienek. Berak esan digunez, aspalditik datorren kontua da, "gauzak galdetzen zizkidaten eta nik normalean beti erantzuna nuen, gaitzen horrekin geratu nintzen". Halere, gaurkoan beste arrazoi bategatik ekarri dugu gure artera. Izan ere, joan den asteburuan inauguratu zuen Filatelia Elkarteak urteroko erakusketa. Aurten, Haritz Euskal Dantzari Taldeak 25 urte betetzen dituzenez, Afrika, Ozeania eta Amerikako dantzei buruzko bilduma berezia dago ikusgai, Jose Marik prestatu duena. Horri buruz egin dugu berba berarekin.*

## "Seiluak kolekzionatzea kulturalki aberastea da"

**– Umetan hasi al zinen seiluekin?**

- Bai, guztiak bezala us-te dut. 13 urterekin hasi nintzen baina gero, 16 inguru nituela, baztertu egin nuen. Arrazoiak batez ere ekonomikoak izan ziren. Gero eta seilu gehiago nahi dituzu eta horrek, nahitana-hiez, kostua suposatzen du. 40 urte nituela berreskuru ratu nuen zaletasuna.

**– Zertan oinarritzen da filatelia?**

- Batez ere kultura da. Mundu mailan gertatzen diren hainbat eta hainbat gauza ikasten dituzu seiluei esker. Izan ere, seiluak gertakizunen baten omenez ateratzen dira gehienetan eta asko irakasten dute.

**– Halere, denetik jaso baino, hobe izaten da gairen batean espezializatzea, ez?**

- Bai. Nik, esate batera-

ko, musikari buruzko kolekzioa egiten dut. Parrokiako Abesbatzarekin Vienan izan nintzanean hasi nintzen musikarekin eta gaur arte. Musikaren inguruan ateratzen diren seiluak jaso eta horien bilduma ari naiz egiten.

**– Nola lortzen dira seiluak?**

- Lehenengoak oso erraz eta merke. Mundu mailako 1.000 seilu desberdin eskura ditzakezu... Umetan horrela hasten zara. Gero, eskutitzen bidez, enpresaren batek zure kolekzioaren berri baldin badaki, gorde egiten dizkizu... Ostantzean, komertzialak daude, ni neu harpideduna naiz eta hainbestean behin, mundu mailan musikaren inguruan ateratzen diren seiluak bidaltzen dizkirate.

**– Guztiak?**

- Bai. Horrek abantaila

bat du, merkeago ateratzen dela. Baina, beste alde bate-tik, interesatzen ez zaizkizun seilu asko ere eskuratzun dituzu, batere baliorik gabekoak.

**– Zenbat seilu dituzu etxean?**

- 20.000 inguru, gutxi gorabehera. Gutxinaka hasi eta konturatzen zarenerako, gero eta gehiago dituzu. Argumentu bat osatu nahi duzu eta esan nahi duzun guztia adierazi seiluen bidez.

**– Bitxikeriarik ere izango da.**

- Askok! Esate baterako, Olinpiadak direnean. Mundu osoa hasten da kirolei buruzko seiluak ateratzen. Afrikan, Sahara inguruko tokietan eskiari buruzko seiluak atera izan dituzte. Bitxikeria asko dago. Kontua da dirua ematen duela. Liechtenstein herrialdean, esaterako, seiluak egin eta saltzetik bizi dira batik bat.

**– Zaletasun garestia al da?**

- Gaur egun seilu normal batek 35 pezeta balio ditu. Hortik behera eta gorakoak daude. Nik 8 seiloz osatutako serie bategatik 20.000 pezeta ordaindu izan dut baina, esate baterako, Espainiako seilu bildumako 8. zenbakia duena, 1951. urteko bi errealekoa, 2,5 milioi pezeta inguruan dabil. Hortik gora, enkante bidez bada 300 milioi ere ordaindu izan duenik.

**– Ordainduko al zenuke horrenbeste?**

- Ez. Seiluen bildumatik gutxien interesatzen zaidana balio ekonomikoa da. Beharbada seilu hori izatea gustatuko litzaidake baina kulturalki suposa dezakeenagatik eta beti ere bilduma baten barruan, ez soltean.

JOSE MARI ETXANIZE





Enrike  
Garate

**1**969an Tampa hirira (Florida) joan zen zestan jokatzer. Maletak egin eta itsasoaz bestalde aldegin zuen Enrikek.

Kolpe baten eraginez,

koagulo bat egin zitzaion birikan eta operatu egin zuten. Pilota laga eta tailer batean hasi zen lanean, piezak egiten. Gaur egun pentsionista da.

Enrikek 29 urte daramatza bertan eta dagoeneko "amerikanoa" dela esan daiteke. Berehala ikasi zuen ingelesa, eta Cubako emakume batekin ezkondu zen 1970ean. Zibilez hasieran, eta 1976an, elizako zereemonia egin zuten. Bi alaba dituzte: Maite 27 urtekoa eta Nerea, 20koa.

Euskara ez omen du galdu. Hilerero deitzen dio amari, eta biek euskaraz jarduten dutela esan digu. Alabek, berriz, ez dute euskararik ikasi. Gaztelania ere, nagusiak zertxobait badaki baina txikiak ez gaztelaniarik, ez euskararik, batere ez.

29 urtetan, bi aldiz baino ez da izan Elgoibarren. Anaiaren hiletan, eta duela 5 urte, San Bartolomeetan.

Martxo aldera, Carolina del Nortera joango dira bizitzera, mendira. Enrikeren ilusioa horixe omen da, "etxe bat mendian eduki, animaliekin, trankil bizi izateko".

Jakin dugunez, askotan eskatzen dio Enrikek amari gauzak bidaltzeko. Oraingoan manzanila bidali omen dio.



**bilbao EXPRESS**  
bidaia agentziak  
babestutako atala

Foruen plaza, 3  
Tel: 74 39 12

## Alejandra Osoro Mendikute (1900-1975)



● 1900eko maiatzaren 28an jaio zen Abatetxe baserrian, Urruzuno bailaran. 4 anaia eta beste 4 arreba ziren, bera hirugarrena.

● Ez zuen ikasteko aukera handirik izan eta ama eta amonarengandik jaso zuen jakintzarik gehiena. Etxeko lanetan laguntzen zuen, baratzean, gizonek bezala lan nekezak, gogorrek eta txarrak eginez. Elgoibarrera eta Azkoitira errekaduak ere egiten zituen.

● Detaile txiki bat: 18 urterekin, 100 kiloko arto zakua bizkarrera jasotzeko gai zen.

● Gaztetan, Madarixan zein Kurutzetan erromeria izaten zenean, ez zuen hutsik egiten.

● 19 urterekin, Manuel Etxanizekin ezkondu eta Munaundi baserrira joan ziren maioarazgo.

● Lehenengo semea eduki eta berriz haurdun zegoenean, senarra Afrikako gerrara eraman zuten bi urte luzerako. Egoera honi aurre egitea batere erraza ez izan arren, familiakoen eta ezagunen laguntzari eta bere ausardiari esker aurrera egitea lortu zuen.

● Senarra Afrikatik bueltatuta, denera 7 mutil eta bi neska izan zituzten.

● Urte pozgarri batzuen ostean, zoritxarrak berriz ere lekua hartu zuen Munaundin. 43 urterekin alargun geratu zen. Sufritzen jakinda eta sinesmen handiari esker, familia osoa aurrera atera eta zoriona ezagutzea lortu zuen. Seme-alaba guztiak ezkondu, iloba mordo bat izan zituen.

● Urkiolako San Antoniora, Arratera, etab.era bisitak egitea gustatzen zitzaion. Emakume estimatua zen herrian, hizlaria, jatorra eta borondate handikoa. Familia giroaz disfrutatzea eta euskal kirolak gustatzen zitzaizkion.

● 1975eko otsailaren 10ean hil zen 75 urterekin.

Juanito Gorostiza

**KAROBI**  
TABERNA



Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

**karkizano**  
San Frantzisko 12-14 - Tel: 74 05 49

**Arrieta**  
San Bartolome, 18  
Tel. 74 08 49

**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak  
Urasandi, 12 behea  
Tel-Faxa: 74 04 89



Argazki hau Baltasar Elkartearen eratzte egunean aterata dago, 1959an. Elkartean bertan daude bazkide sortzaileak, dotore-dotore jantzita, egunak mezezi baitzuen. **Angel Garatek** laga digu argazkia.

Segidan izen-abizenen zerrenda emango dugu.

Atzetik hasita, ezkerretik eskumara:

**Bonifacio Ipiña, Simon Uria (†), Rufino San Martin, Jose Mari Mugerza (†), Ramon Uriguen, Angel Astigarraga, Gerardo Garate (†), Jose Mari Gil, Ignacio Gabilondo eta Sabino Juaristi (†).**

Bigarren ilaran: **Angel Zubiaurre, Valerio Garitagoitia (†), Javier Arriola, Xabier Galdos, Andres**

**Urain (†), Luis Larrañaga eta Eduardo Irusta.**

Hirugarren ilaran: **Imanol Konde, Patxi Igartua, Victor Arrizabalaga, Sabino Muguruza (†), Jose Luis Arozena, Ildefonso Ansola (†), Jose Mari Etxeberria, Sabin Beristain eta Ignacio Etxeberria.**

Laugarren ilaran: **Paco Mugerza, Iker Argarate, Silvestre Aranburu (†), Javier Zengotita, Sebastian Odriozola, Ignacio Betelu, Juan Mari Mugerza, Ioseba Argarate, Xabier Argarate eta Fermin Zubiaurre (†).**

Bosgarren ilaran: **Jose Mari Igartua, Pedro Mari Esnaola, Patxi Gabiola (†) eta Roke Gabilondo.**

Aurreko ilaran, makurtuta: **Juan Migel Esnaola, Tomas Agirre, Iñaki Gorostiza, Guillermo Regil, Ignacio Mugerza, Vicente Zubiaurre eta Carlos Revenga.**

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 74 33 92

**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



## “Haundi iritsi den lekura iristea arrakasta da berer”



### Juan Martin

- **Adina:** 51 urte.
- **Futbol talde bat:** Elgoibarrez gain, Athletic-a.
- **Futbola ikusten haserratu egiten al zara?** Kanpotik ikusten ez baina barruan banago bai.
- **Futbola ez den kirola:** Guztiak gustatzen zaizkit.

**- 1997an C.D. Elgoibar lagatzea erabaki zenuen. Zergatik?** - Batez ere lanarengatik. Ezin nuen entrenamendu guztietara joan eta erabakia hartu beharra zegoen. Gauzak ezin dira erdizka egin, egitekotan ongi egin behar dira. Ia bitzita osoa eman dut futboleant eta agobiatu samar nengoen. Hori bai, orain izugarritzko monoa daukat.

**- 14 urterekin hasi zinen futboleant, ez?** - Bai. Haundin 6 denboraldi egin nituen, gero Lasarteko Michelin taldeak urtebeterako fitxatu ninduen eta beste urtebete egin nuen ondoren Anaitasunan. 35 urterekin futbola laga nuen eta urtebetera C.D. Elgoibartik deitu ninduten porteroak entrenatzeko eskaintza eginez.

**- Atezaina izan zinen. Ba al zenuen ezaugarri berezirik?** - Bai, porteriatik baloiarekin ateratzea gustatzen zitzaidan. Zelaira atera eta arriskatzea. Gertatu izan zait kontrako taldeak baloia kendu eta gola sartzea ere baina... Niri zuzenean partehartzea gustatzen zitzaidan eta ikuslegoak ere disfrutatu egiten zuen.

**- Gogoan duzun partiduren bat?** - C.D. Elgoibarren jokatzen nengoela, Michelin-en aurkako partiduan, gure kontrako penaltia geratu nuen eta segidan, baloiak errebotatu eta jokalariek berriz porteriara bota zutenean, bigarren aldiz geratu nuen baloia. Partidu hartan fijasatu zen Michelin nigan eta horren ondorioz fitxatu ninduten.

**- Errealean ere jokatzekotan izan**

**zinen, ez?** - Bai. Fitxaketa egitekotan zegoen baina azterketa medikoa egin zidatenean belaunean lesioa nuela konturatu eta atzera bota ziren. Pena izan zen bestela Errealean jokatuko nuelako.

**- Askok aldatu al da futbola?** - Izu-garri. Lehen ikusgarriagoa zen. Gaur egun teknikoagoa da baina lehen grina gehiago zegoen. Futbol zelaiak ere egokiagoak ziren ikuslegoa gainean egon eta animatzeko, saltsa gehiago sortzen zen.

**- Zein izan da zure lana urteotan C.D.Elgoibar taldeant?** - Atezaina entrenatu eta jokalarien ordezkaria izan. Edozein arazo zegoenean jokalarien aldetik, nik hitz egiten nuen zuzendaritzarekin. Niretzat jokalariai semeak bezala izan dira. Eskaini izan didate taldearen entrenatzailea izatea baina ez dut horretarako balio. Beharbada teknikoki ez nuen arazorik izango baina izaera gogorragoa izan behar da. Nik ezingo nioke bronkarik bota jokalaria bati, oso gogorra egingo litzaidake.

**- Nola ikusten duzu Haundi?** - Fenomeno! Oso ondo. Bigarren B maila estrenatu berri du taldeak eta dagoeneko 8. postuan dago eta Bigarren A mailara igotzeko promozioa jokatzeke 4 puntura. Iritsi diren tokira iristea arrakasta da. Ziur nago maila honetan jarraitzea lortuko duela. Askok poztuko ninduke, taldeari asko zor diot, oso ondo portatu izan dira nirekin eta onena merezi dute.

## KIROL ALBISTEAK

### Merino eskalatzailea Mendi Federazioaren II. Galan saritua

Joan den domekan Josu Merino eskalatzaile elgoibartarrak Euskal Mendizale Federazioak “Mendiko Gala”n ematen duen saria jaso zuen. Bigarren edizio honetan euskal mendizale onena izendatu zuten Merino, Patagoniako Cerro Torre mendira egindako igorarengatik. Ferrari deritzon bidetik egin zuen igoera elgoi-

bartarrak. Bere aurretik mundu mailan beste bi baino ez dira Cerro Torre mendiaren gailurrera iritsi. Merinok eta bere lagun Simon Elías errioxarrak, beste sari bat jaso zuten pasaden abenduan Espainiar Federazioaren eskutik. Sari hauei esker Merino eta bere lagunaren esfortzuek merezi duten errekonozimendua jaso dute.



## Frontoia gainezka San Anton pilota txapelketako finalean

Bi finaletan joko polita ikusteko aukera izan zen

Joan den ostiralean, hilak 16, San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren ikastolako frontoian. Aspal-diko partez, ikastolako frontoia jendez gainezka zegoen jubenilen eta nagusien arteko eskuz binakako partiduak ikusteko. Lehen norgegiogoka jubenilen mailakoa izan zen. Etxaniz eta Arrieta bate-tik, eta Dominguez eta Báez bestetik. Etxaniz eta Arrieta 17 eta 9 aurreratu ziren markagailuan. Hala ere, beste bikotea tartea gutxitzeko kapaz izan zen, markagailua 20 eta 17 tantura jarritz. Azken minutuetan,

Arrieta eta Etxanizek bost tantu egin zituzten segidan eta partidua irabazi zuten. Emaizta 22 eta 20 izan zen. Etxanizek, gainera, jubenil onenak jasotzen duen trofeoa irabazi zuen.

Afizionatu nagusien mailako finalean Galarza

eta Ruiz eta Esain eta Goñi aritu ziren aurrez aurre. Bi bikoteek partidu bikaina egin zuten, joko polita erakutsiz. Azkenean Galarza eta Ruiz nagusitu ziren 22 eta 14. Antolatzaileek Galarza hautatu zuten txapelketako jokalaria onena.



aitor zabala


Lagunak Elkartekoak eta partehartzaileak sariak banatu ostean.

## Gipuzkoako lau titulu Ibai Kirol Elkarteak judokentzat

Joan den zapatuan, hilak 17, Gipuzkoako Judo Txapelketak jokatu ziren kadete, junior eta seniorretan Donostiako Egiako Kiroldegian. Ibai Kirol Elkarteak lau judoka aurkeztu zituen txapelketara kadete mailan, eta laurek lortu zuten podiumera igotzea, bakoitzak bere pisuan. Egoitz Morak eta Zuhaitz Azpiazuk urrezko domina lortu zuten eta Xabi Gonzálezek eta Josu Idiákezek brontzezkoa. Junior mailan eta senior mai-

lan Gorka Garate txapelduna izan zen eta Andoni Atrio hirugarren postuan sailkatu zen seniorretan.

Aipagarria da Gorka Garatek bi mailatan irabazi zuela, juniorretan eta seniorretan. Hil bukaeran junior mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko du Gorkak. Kadete eta senior mailako Euskadiko txapelketak, berriz, beranduxeago izango dira; hortaz, Ibaiko judoek fisikoki zein teknikoki prestatzeko asti gehiago izango dute.



Gipuzkoako Txapelketan parte hartu duten judokak.

### EMAITZAK

#### Futbola

Andorra 0 - Haundi 1  
Elgoibar 4 - Hamaikak Bat 1 (2. erreg.)  
Zarautz 1 - Pedrusko 4 (2. erreg.)  
Elgoibar 3 - Olarizun 2 (E. L. jub.)  
Allerru 2 - Elgoibar 0 (2. jub.)  
Elgoibar 0 - Zarautz 4 (Kad.)  
Elgoibar 3 - S. Tomas Lizeoa 1 (Inf.)  
T. La Amistad 5 - Elgoibar 0 (Neskak)

#### Eskubaloia

Legazpia 1 - Unceta Elg. 21 (Kad. nes.)  
Corazonistas 23 - Pneumax Elg. 17 (Kad. mut)  
Pagoaga Elg. 20 - Usurbil 15 (Jub. nes.)  
Corazonistas 27 - Tecnomeca Elg. 27 (Jub. mut.)  
Elgoibar 20 - Zarautz 24 (Seniorrak)

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 24  
17:00 Haundi - Gernika  
18:45 Pedrusko - Eibartarrak (2. erreg.)  
12:15 Elgoibar - Mondragon (2. erreg.)  
Igandea, 25  
12:15 Elgoibar - Urola (Inf.)  
16:15 Elgoibar - Sondika (Neskak)

#### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 24  
15:30 Unceta Elg. - Urola (Kad. nes.)

### AGENDA

(Urtarrilak 24, larunbata)

#### ARETO FUTBOLA

■ Aleb. mutilak (Mintxetan) ■  
10:30 Mendaro B - Herri Boomerang  
11:15 Pilar Flash - Pilar All Star  
12:00 Ikas Espabidubi - Ikas Inpernu  
■ Aleb. neskak (Mintxetan) ■  
10:30 Ikas Planet - Pilar Kas  
11:15 Ikas Laino - Herri Argi  
12:00 Ikas Txingor - Ikas Trumoi

#### SASKIBALOA

■ Infantil mutilak (Ikastolan) ■  
9:45 Ikas Bolilla - Ikas Axelko  
10:30 Ikas Otsokoak - Perraubekoak  
■ Infantil neskak (Ikastolan) ■  
11:15 Ikas Gorribeltz - Ikas Spanky  
12:00 Pilar Mix - Ikas Trons  
■ 3x3 Saskibaloia (Pilarren) ■  
11:00 Basati A - Pilar Boys A  
11:45 Basati B - Pilar Boys B

#### ESKUBALOA

■ Benjamin mutilak (Ikastolan) ■  
9:30 Pilar Bulls - Pilar Lakasitos  
10:30 Herri Otsoak - Mendaro A  
11:30 Ikas Bulls - Ikas Tximista  
12:30 Ikas Bihurri - Ikas Gorri  
■ Benjamin neskak (Ikastolan) ■  
10:00 Pilar Txiki - Pilar Usoak  
11:00 Ikas Ortzadar - Ikas Bizkor  
12:00 Ikas Hartz - Ikas Beleak

# 2 RI 2L

## Zaldiko maldiko

"Bazen behin, Camelot izeneko erreinua. Bertan Arturo eta bere mahai biribileko zaldunak bizi ziren (beste biztanleez gain)..." Denok ezagutzen dugu istorio hau, baina hain ezaguna ez dena, zaldun ezezagunaren kondaira dugu. Erreintutik erbesteratu egin zuten eta Chicago hirian talde bat sortu zuten. **DON CABALLERO** izenarekin agertzen zaigu hirukote hau, poesia mutuaren erreibindikazioa egiten dutelarik musikaren bidez. Erritmo biziak eta gordinak jorratzen dituzten hainbat talderen zaku berean sar genezake (Fugazi, Helmet=Dut...) baina berezitasun handiena hor legoke. **DON CABALLERO** talde instrumentala dugu, eta musika estilo horretan abeslaririk ez edukitzeak interesa areagotu baino ez du egiten. Bi diska argitaratu dituzte dagoeneko: "For respect" eta "2", gure logelako apalak disko horiekin betetzea merezi dutenatarikoak dira. Zorte on, ea norbaitek dendaren batean aurkitzen duen (ez dut uste).

Iban Urizar eta Julen II



## Harrera ona izan dute San Antonetako ekitaldiek

325 lagun joan ziren opera emanaldira

Udal Kultur Zerbitzua pozik dago joan den San Anton egunean, hilak 17, antolatutako ekintzek izan duten harrerarekin. Azken urteotan ekitaldi gutxi antolatzearen aldeko apostua egin dute udaletik, "baina antolatzen direnak arrakasta izango duten ekitaldiak izaten saiatzen gara". Zapatu gauean izan zen euskal opera emanaldiak harrera ona izan zuen elgoibartarren artean. Udaletik emandako datuen arabera, 325 bat lagun joan ziren opera ikustera. Jendea oso gustura egon omen zen entzun ziren komentarioen arabera. San Anton egunak ere eman zuen besterik. Goizean eta arratsaldean, haurrentzako parke erraldoiarekin ederki pasatzeko aukera izan zuten txikitxoek. Zapatu eguerdian Filatelia Elkar-teak antolatutako seilu erakusketa inauguratu zen. Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrenari eskainitako erakusketa denez, Haritzeko dantzariak eta Udal Txistulariek inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten. Mezaren ostean dantzari guztiak Plaza Handian elkartu eta kalejiran Kultur Etxeraino hurreratu ziren. Bertan, udal agintarien aurrean aureskua dantzatu zen eta ondoren, inaugurazio ekitaldiari hasiera eman zitzaion. Jose Mari Etxaniz elgoibartarrak aipamen berezia jaso zuen dantza tradizionalari buruzko bilduma egin baitu. Alkateak, kultur zinegotziak, Jose Inazio Sarasuak Haritzen izenean eta Ikerfolk taldeko Juan Antonio Urbeltzek opari bana jaso zuten Filatelia Elkartekoek emanda. Igandean, berriz, Ertzantzaren Bandak kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian. Banda honek urtero egiten du Elgoibarrera bisita, nahiz eta iaz etorri ez.

### Diru kontuak

Aurtengo San Anton jaien aurrekontua ez da milioi pta.ra iritsi. Erakusketarentzat 300.00 pta.ko diru laguntza eman du Udalak. Operaren kontrataziorako 250.00 pta. gastatu dira eta 230.000 pta. haurren parkea antolatzeko.



Filatelia erakusketaren inaugurazioari kolore berezia ematen zioten Haritzeko dantzariak.



'Iziar' operaren 2. emanaldia izan da Elgoibarkoa. Herri txikietan operak izango duen harrera neurtu nahi dute Sarobe Guneakoek.



Eguraldi onari esker, haurrek nahi adina gozatu zuten Plaza Handiko jolas parkean.



Ertzantzaren Bandak obra klasikoak eta gaurkoak jo zituen.

# Egoitz Horrillo

IKASLEA - 16 URTE



## 1. - Merezi al du bizitza? Eta Mendaron bizitza?

- Hombre! Bizitzia dauan gauzarik inportantiena da./ Mendaron oso pozik gaude. Herri garbi eta politxa da, trankila.

## 2. - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batengan?

- Horixe baietz! Ointxe bertan telebistan ikusi dan kasuan bezela, sufritzen badao eta hil nahi badu, zeinek esango dio ezetz.

## 3. - Hil eta gero?

- Espero det zeozer politxa egotia. Nik usten dot reenarnaziua edo egongo dala.

## 4. - Lehenengo ni eta gero besteak.

- Batzuetan pasatzen zata ze gizarte honek horretara bultzatzen gaitxu baina egoera batzuetan bestiak kontuan eukitzen ditzut.

## 5. - Nori kontatzen dizkiozu arazoak?

- Nere anaia zaharrenari. Entzuten daki eta konsejuak ematen.

## 6. - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?

- Todoterreno bat erostia eta familixa bat sortzia./ Bizioa, neskak!

## 7. - Sinesten al duzu politikan? Eman-go al zenuke botorik?

- Ez. / Baietz uste dot baina ez alderdi konkretu batek konbenzitzen nauelako.

## 8. - Noiz joan zinen azkeneko aldiz manifestaldi batera?

- Inoiz ez naiz jun. Ez naiz bronketan sartzeko zalia.

## 9. - Euskalduna naiz eta harro nago?

- Hori klaru dao, beste guztian gaintetik!

## 10. - Zerk galarazten dizu loa?

- Eskoliak eta igual zeozer gaizki ein badozu zela erreazionauko daban jendiak...

## 11. - Mendaron Gaztetxea behar da?

- Gure kuadriliak badaka lokala baina herriko gazte guztientzat egon biharko litzake Gaztetxia.

## 12. - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?

- Keba! Txintxua naiz, ez diuet gerra askorik ematen. Lau gera etxian eta nahikua dake danekin.

## 13. - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

- Gehixen, entzuten dakibela eta momentu bakoitzian zer erantzun eman bihar dan. /Gutxien, onegixak dimala.

## 14. - Laguntzen al duzu etxeko lanetan?

- Bai, danak. Txandaka eitxen dou fregaua, erosketak, kuartua garbitxu...

## 15. - Alkoholik gabe ondo pasa daiteke?

- Ondo pasau laike lagunekin baina oin gauzak dauden bezela, alkoholik gabeko jairik zaila da.

## 16. - Irakurri duzun azken liburua?

- "Un detective llamado Flanagan", eskolan bialduta. Ez naiz irakurzaila.

## 17. - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?

- Maitasuna sexuekin baina oin momentuan maitasuna, sexua aurrerago.

## 18. - Birjinitatea traba ala bertutea?


- 18-20 urtetik aurrera gaur egun traba izan laike, jendia hasi laike gauzak esaten.

## 19. - Homosexual batek maite zaituela esango balizu?

- Berak maitxe bannau zer ingo diot! Ez neuke gaizki hartuko.

## 20. - Sinesten al duzu betirako maitasunean?

- Nik ondiok ez dot esperientziarik euki. Posible izango da, baina zaila.



**INTERESEKO  
TELEFONOAK**

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko. . . . . 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . . . . . 740385  
 D.YA (anbulantzia) . . . . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea . . . . . 756264  
 Odol Emaileak . . . . . 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. . . . . 740442  
 PESA (Eibar) . . . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia. . . . . 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua. . . . . 744366  
 Udal Kirol Patronatua . . . . . 744415  
 Kultura Zerbitzua . . . . . 742158  
 Mendaroko Udala . . . . . 756100  
 Ongizate zerbitzua . . . . . 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udaltzaingoa . . . . . 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra . . . . . 741626  
 Kiroldegia . . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . . . . 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547  
 Gaztetxea . . . . . 741357

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza . . . . . 740296  
 Zaharren Biltokia . . . . . 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . . . . 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea . . . . . 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . . . 74 40 73  
 El Correo Español . . . . . 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21  
 Zazpiki Irratia . . . . . 74 34 74

**25**  
**igandea**  
 .....

**12:30 BALTASAR  
 ELKARTEKO  
 HILDAKO  
 BAZKIDEEN MEZA**  
 Parrokian

**19:30-22:25 ZINEA**  
 "Siete años en el Tibet"

**26**  
**astelehena**  
 .....

**19:30-22:25 ZINEA**  
 "Siete años en el Tibet"

**28**  
**asteazkena**  
 .....

**18:30 INSTITUTUKO  
 GURASOEN BILERA**  
 Ezenarro ikastetxeko  
 areto nagusian

**29**  
**osteguna**  
 .....

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "Tocando el viento"

**30**  
**ostirala**  
 .....

**18:00 ODOL  
 ATERALDIA**  
 P. M. Urruzuno 8an

**19:00 ELGOIBARKO  
 IZARRA IDAZ  
 LEHIAKETEN SARI  
 BANAKETA**  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Elgoibarko  
 Izarra

**19:00 GAZTE  
 ASANBLADAREN  
 BILERA**  
 Gaztetxean

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "Tocando el viento"

ZINEA



**Siete años en el Tibet**

Pelikula hau 1953an merkaturatu zen liburu batean dago oinarritua. Heinrich Harrer austriarrak Himalayako mendiak igotzen bizi dituen esperientziak kontatzen dira 1939 urteaz geroztik, II. Mundu Gerra hasten denean. Gerra sasoiari Indiako kontzentrazio esparru batera eramango dute. Handik ihes egiten du eta babesa topatzen du Tibet-en. Hiltzear dagoenean Dalai Lama mutikoa ezagutuko du.

**Zuzendaria: Jean-Jaques Annaud**  
**Antzezleak: Brad Pitt, David Thewlis, B. D. Wong.**





Zuzendaria: M. Herman.  
Antzezleak: E. McGregor, P. Postlethwaite, T. Fitzgerald.

**Tocando el viento**  
(Britainia Handia. 1996)

Meagintzatik bizi izan den Grimley izeneko herriko drama sozialaren berri dakarkigu pelikula honek. Langile asko langabezia geratzen dira eta herriko musika banda ere desagertzeko zorian dago krisiaren ondorioz. Egun batean emakume bat heltzen da herrira enpresen bideragarritasuna neurtzeko.

● **Baltasar**  
**Elkarteko hildako**  
**bazkideen aldeko**  
**meza**

Igandean, hilak 25, Baltasar Elkarteko hildako bazkideen aldeko meza izango da San Bartolome parrokian eguerdiko 12:30ean. Hildako bazkideak hauek dira: J. Antonio Alzibar, Ildefonso Ansola, Silvestre Aranburu, Pedro Arregi, Roke Gabilondo, Valerio Garitagoitia, Sabin Juaristi, Jose M. Mugerza, Sabin Juaristi, Sabino Mugerza, Bautista Oñederra, Andres Urain, Simon Uria, Fermin Zubiaurre, Angel Canabal, Ramon San Martin eta Francisco Aranberri.

Bestalde, Baltasar Elkar-teak zuzendaritza berria aukeratu du. Presidente Angel Garate izendatu dute; presidenteordea Xabier Arriola; idazkaria Xabier Ferreira eta diruzaina Xabier Oñederra.

● **Malabar**  
**ikastaroa**  
**Gaztetxean**

Gazte Asanbladakoek jakitera eman dutenez, dagoeneko hasi da malabar ikastaroa. Hala ere, norbaitek ikastaroan parte hartzeko interesa edukiko balu, aukera dauka oraindik. Harremanetarako Gaztetxetik pasatu. Bestalde, ostiralero bilera egingo da Gaztetxean iluntzeko 19:00etan. Interesa duten guztiak parte hartzea animatu nahi dituzte Gazte Asanbladakoek.

● **Labeiko esmalte**  
**ikastaroa**

Egur Arte tailerrak labeiko esmalte ikastaroa antolatu du otsailaren 2tik 20ra bitartean. Izena emateko arratsaldeko 18:00etatik aurrera Ubirtarten Egurrek duen egoitzatik pasatu.

● **Herri**  
**Institutuko**  
**gurasoen bilera**

Elgoibarko Herri Institutuko zuzendaritzak bilera baterako deia luzatu du datorren asteazkenerako, hilak 27. LOGSEko lehen mailako gurasoei dago zuzendua eta ikastetxean burutu den Hezkuntza Sexualari buruzko programa aztertuko da bileran. Ezenarro ikastetxeko areto nagusian izango da iluntzeko 18:30etik aurrera.

● **Datorren**  
**ostiralean, hilak**  
**30, banatuko dira**  
**Elgoibarko Izarra**  
**Idaz Lehiaketan**  
**sariak**

Elgoibarko Izarrak urtero antolatzen duen Idaz Lehiaketan sari banaketa ekitaldia datorren ostiralean, hilak 30, izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hasiera emateko Oihulari Klown taldeko kide batek ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Segidan, Etxegiña Bertso-Paper lehiaketako sariak banatuko dira. Jarrera Oihulari Klownekoak arituko dira berriz, eta azkenik, prosa ataleko sariak emango dira ezagutzera.

**T R A N D A R R**

**FARMAZIAK**

	Egunez	Gauetz
<b>24</b>	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
<b>25</b>	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
<b>26</b>	Escala	Escala
<b>27</b>	Bidasolo	Bidasolo
<b>28</b>	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
<b>29</b>	Anduaga	Anduaga
<b>30</b>	Yudego	Yudego

**ESCALA:** Rekalde, 1  
Soraluze. Tel: 75 16 38  
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1  
Garagarza. Tel: 75 61 42

**OKINDEGIA**

**25** igandea Fotero

**Lana**

◆ **ESKAINZA** ◆

- ◆ Asteburu eta jaietarako emakumea behar da bokadiloak egiten esperientziarekin eta egunero taberna garbitzeko aukerarekin. ☎ 74 37 71
- ◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ 74 45 87
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90
- ◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ 74 21 44 (Ana Isabel)

- ◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ 74 43 31 (Agurtzane)
- ◆ Eskopetero-armeroa eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko ☎ 17 47 70
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 17 47 70
- ◆ Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. ☎ 17 47 70
- ◆ Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. ☎ 74 15 09 (Victoria)
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta zaharrak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldeko lanak egiten ☎ 74 37 22

**Garajeak**

- ◆ Garajea salgai Urasandin (5 eta 7 zenbakien azpian). ☎ 74 13 07
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04
- ◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ 74 13 82
- ◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ 74 27 89
- ◆ Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ☎ 74 04 34
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut King-Kong-en. ☎ 76 17 95

**Partikularrak**

- ◆ Latin eta literatura klaseak emateko irakaslea behar da. Curriculum-a bidali **Bergarako 245 postakutxara**.
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen dituztuz goizez. ☎ 75 50 35 (Imanol)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen dira. ☎ 74 07 86 (Nerea)
- ◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ 74 41 16/ 907 15 30 62
- ◆ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ 74 12 05 (gauze)

**Salerosketak**

◆ **SALDU** ◆

- ◆ Pentium 75, 16 MB RAM, 640 MB Disko gogorra, 3,5 disketera, CD ROM X4, inpresora, arratoia, Windows 95 eta Office 97 programekin salgai. ☎ 74 19 21.
- ◆ Lau txakur salgai. Hilabete dute. ☎ 74 16 86 (Antonio)
- ◆ Solarium-a saltzen da prezio onean. ☎ 74 45 87
- ◆ Hiru plazako sofa saltzen da. Estrenatu gabe. ☎ 74 41 12
- ◆ Kotxeak salgai: Lada Niva. Matrikula SS 8952 AH eta Seat Panda, SS 3368 N. Prezio onean. ☎ 74 03 75 (arratsaldeko 7etatik aurrera)
- ◆ Mendi trabesiako botak saltzen dituz. TR9 Nordika, 42 zenbakikoak. ☎ 75 16 80 (Gauze)
- ◆ Hozkailu bitrina, pisu elektronikoa eta kutxa erregistratzaile txikia salgai. ☎ 75 50 09 (gauze)
- ◆ Taberna traspasatzen da Plaza inguruan. ☎ 74 00 16
- ◆ Merkatu Plazan lokala saltzen da. Berritua eta prezio onean. ☎ 74 25 17
- ◆ **EROSI** ◆
- ◆ Lokal merkea erosi nahi genuke kalean. ☎ 74 36 94 (Ainhoa Alonso)
- ◆ Manikiak behar dituztuz eskaparaterako. ☎ 58 09 18 (Bego)
- ◆ Hariak gordetzeko armairua, botoiak forratzeko makina eta kutxa erregistradora erosiko nituzke. ☎ 58 09 18 (Bego).
- ◆ Txabola erosiko nuke Elgoibaren edo inguruan. ☎ 74 37 87

**Etxebizitzak**

- ◆ Pisia salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m<sup>2</sup> eta ganbara. ☎ 74 11 05
- ◆ Etxea salgai Urasandin. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, sukaldea, 2 komun, ganbara eta 3 terrazatxo. Koketoa. ☎ 75 52 15
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. ☎ 929 43 24 22 (Arratsaldeko 6etatik aurrera).
- ◆ Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrorra. Berritua. ☎ 908 57 95 89
- ◆ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. ☎ 74 00 65

**Bestelakoak**


- ◆ Joan den igandean erlojua galdu nuen Lanbroa eta Urkiola bitartean. Viceroy markakoa da, esfera urdinarekin. Korrea zilar eta urre kolorekoa du. Balio sentimental handia du. Norbaitek topatu badu dei dezala mesedez ☎ 74 19 13 telefonora (Ana).
- ◆ Cáritasek tresilo bat hartuko luke. ☎ 74 15 09/ 74 12 57
- ◆ Cáritasek sukaldea, laba eta garbigailua emango lituzke ☎ 74 15 09/ 74 12 57
- ◆ Solfeoko karpeta galdu dut. Kodernoetan Aritz Cerviño Gorostiza izena agertzen da. ☎ 74 12 69
- ◆ Roy Txandal markako jertsea kendu zidaten larunbatean Kiroldegian konfusioz. Mesedez, hartu zuenak laga dezala Kiroldegian.
- ◆ Urtarrilaren Sean Mercadeco, Misio Taldeak Errosario kalean jarri zuen dendan, eskularru marroiak laga zituen ahaztuta norbaitek. ☎ 74 23 22

**Agurrak**

- ◆ Superzorionak **Ion Perezi** abenduaren 20an urteak bete zituelako. Gelakoen eta bereziki Landabururen partez.
- ◆ Superzorionak **Beñat Konderi** abenduaren 28an urteak bete zituelako. Gelakoen partez. Aupa inuxente!
- ◆ Zorionak **M.Karmen Azpiazuri** hilaren 14an urteak bete zituelako. Ikastolako 4B mailakoen partez.
- ◆ Zorionak **Aurora Alvarez** hilaren 20an urteak bete zituelako. Laura, Amaia eta Juanen partez.




◆ Zorionak **Maite De Pablori** urtarrilaren 28an 6 urte beteko dituelako. Gurasoen eta anaiaren partez.



◆ Zorionak **Borja Mallo Ezanerrori** gaur, hilak 23, 8 urte bete dituelako. Gurasoen partez.




◆ Zorionak **Iboni** atzo, hilak 22, 2 urte bete zituelako. Muxu haundi bat Aitor eta familiaren partez.



◆ Zorionak **amaia Joxepari** hilaren 26an urteak beteko dituelako. Familia guztia- ren partez.




◆ Zorionak **Miriam** eta **Aitor Arosari** hilaren 21ean 8 urte bete zituztelako. Nagore, Nerea L. Amaia, Miriam B eta gela osoaren partez.




◆ Zorionak **Leire Ipiñari** hilaren 22an 9 urte bete zituelako. Aitxixen, osaben eta gurasoen partez.



◆ Zorionak **Patxi** Astear- tean, hilak 20, 20 urte bete zenituen. Maite eta Imanol eta familia osoaren partez. Aupa Athletic!



◆ Zorionak **Iker Zapatari** hilaren 15ean 3 urte bete zituelako. Ainhoa, Laura eta Amaieren partez. Baita guraso Iban eta Ainhoaren partez ere.



◆ Zorionak **Ainhoa Arealori** hilaren 25ean 11 urte beteko dituelako Ikastolako 5. mailakoen partez.

# Santa Ageda

# eskea

Baserriz baserri  
kopla kantari

Otsailaren 4an, astezkena  
Eguerdiko 14:30ean hasita  
22:00etan afaria S.



edu arrilaga 97

Koplariak: German Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza.  
Parte hartu nahi duenak dei dezala 74 16 26 telefonora (Imanol)  
urtarrilaren 30a baino lehen.

Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra



Laguntzailea:



Elgoibarko  
Udala




Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# Sari banake- ta

**OIHULARI KLOWN**

ipuin kontalarien laguntzarekin

Urtarrilaren 30ean, ostira-  
la  
Arratsaldeko 19:00etan





# JAKIN



a k a d e m i a



## LEKUZ ALDATU GARA

**Egoitza berria: Arregitorre, 6 (Mekanika parean)**



- Informatika
- Klase partikularrak
- Kontu eta merkatal gestioa
- Mekanografia

**Talde murriztuak  
Klaseak goizez eta  
arratsaldez**

